ek!
eta kitto!
euskara elkartea
2024ko ekainak 21 · 1318. zenbakia



# GAZTE GARA GAZTE ETA JAIAK DITUGU MAITE

EUKI
www.euki.com
943 20 42 91
LAN, LEGE ETA ZERGA AHOLKULARITZA
Sanjuan zoriontsuak



# IRAZABAL
clínica dental





**Ainhoa Zulueta**
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
**Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian.
**Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa. Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa.
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara
**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

**Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak**

**JARRAI IEZAGUZU**

**Facebook**en: Clínica Dental Irazabal    **www.clinicairazabal.com**







IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

RPS 36/21

# Jarraitu gaitzazu!

YouTube




DJ Galtzagorrik zapatu gaueko giroa alaituko du txosnagunean (02:30etik aurrera). Fraka gorridun iratxoaren atzean lau lagun daude eta euretako hirurekin egon gara biharko ikuskizunean eskainiko dutena zer izango den jakiteko.

@etakitto

etakitto.eus

eta kitto! euskara elkartea

**ARGITARATZAILEA**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA**
Urkizu, 11 · 20600 Eibar
**TELEFONOAK**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
**FAXA** 943 20 28 72
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
**ELKARTEAREN E-MAILAK**
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**
Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

**ADMINISTRAZIOA**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA**
Ana Aizpurua
**ERREDAKZIO-BURUA**
Silbia Hernandez
**DISEINUA**
Maku Oruezabal
**MAKETAZIOA**
...eta kitto! astekaria
**HIZKUNTZA ARDURA**
Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA**
Belen Ulazia
**TELEFONOA**
943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA**
Silbia Hernandez
**BANAKETA-ARDURA**
Idoia Labado
**TIRADA**
7.800 ale
**INPRIMATEGIA**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA**
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako aldizkaria

EIBARKO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak

## Eibar bizigarrixa

**Bai**, Eibarren obrak iñun baiño luziaguak dira. Hortxe bertan dakagu gure etxeko bentana aurrian kilometro pasatxo dakan obria martxan, Estaziñuan hasi eta Azitaiñen amaittuko dana.

**Bai**, herrixan zihar gainbeheria argi ikusten da. Baiña esku hartzia hasi da: trenbidiari gaiñetik kajoi bat ipiñi bertan paseau ahal izateko, hartara gainbeheriari eutsi eta herrixari demaseko bultzadia eman.

**Bai**, Eibarri emango jakon bultzadia sekulakua izango da. Kontuan hartu eizue obra hórrek Eibar, Ermua, Elgoibar, Mendaro, Soraluze, Donostia eta Bilboko herritarrek be mejorauko dittuela, eta hórrek danok Eibarrera paseatzera etortzeko aukera aparta izango dabe. Gure agintari prestuek Europan gai hori horrela saldu dabe, nahiz eta hamen, dirudienez, iñor ez dan enterau.

**Bai**, Eibarren leku batzuk hondamendi natural bat edo gerra pasatako lekuak dirudixe. Horren aurrian, eibartar batzuk badake suertia, ze lur-azpiko -edo, hobeto esanda, porlan-azpiko- babeslekuak prestatzen ari dira. Hoien etxiak trenbide gaiñeko kajoi horren azpixan geldittuko dira eta bertan bizitzeko aukeria izango dabe. Horrela, arbolak kerizpia emoteko premiñarik be ez da egongo.

**Bai**, Eibar bizigarrixagua hamentxe bertan dakagu.

**Bai**, obria izugarri merkia da, europearrek oparittutako diruarekin egitten ari da-eta. Gure historiaren parte arkitektoniko-paranoikotik ikusitta, hau bai gordetzeko modukoa.

* Leire Narbaizaren ***Eibartarrek irabazteko*** ...eta kitto!-rako kolaborazioan inspirauta (2024ko ekainak 14 -23.orrialdea-)

**No al paseo que nos entierra - Ekialdea Bai Auzo Elkartea**

# Hortik esanak

Eibarren 2008an 28 banku bulego zeuden eta gaur egun 11 baino ez daude; hala, azken hamabost urteetan, 10.000 biztanleko 10,2 bulego izatetik, 4 bulego izatera pasatu da. Gaur egun Laboral Kutxa eta Kutxabank dira bakarrak bi bulegorekin; Rural Kutxa, Santander, Caixabank, BBVA, Sabadell Gipuzcoano, Bankoa Abanca eta Bankinter-ek bakarra dute. Eta herrian bulegoei eusten dizkieten bankuek ere murriztu egin dituzte herritarrei leihatilan eskaintzen dizkieten zenbait zerbitzu, batez ere eguneroko diru mugimendu arruntekin lotutakoak: esaterako, Kutxabankek gaur egun astean hiru egunetan eskaintzen du eragiketa horiek egin ahal izateko aukera, eta Laboral Kutxak zerbitzu zabalagoa eskaintzen badu ere, bien kasuan ordutegi murriztua dute.

**UBANE MADERA, Pil-pilean aldizkaria**

Espainiak irabazi du. Guztiok itxaroten genuena egin du; nik behintzat horrela pentsatzen nuen. Ona da horrela hastea, mundu guztiak dakielako goiz jaikitzen denari Jainkoak laguntzen diola. Ikusi behar dugu, baina ni baikorra naiz. Bestela jokatzea mozoloena da... eta pesimistena.

**MARIANO RAJOY, kirol-zutabegilea**

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PAPARREKO ORRATZA** ➜ Gaztelerazko 'broche'. "Urre eta harri fiñez betetako paparreko orratza opatu zetsan maittiari bere egunian".

**PAPELADA** ➜ Planta, itxura. "Zoro papeladia egin eban hain ondo eze, narrua salbau eban urkamenditik".

# Argazki zaharra

## 1964




### Lagun kuadrilla sanjuanetan

Sanjuanetako kuadrillen lehiaketak entzutetsuak izan ziren 60ko hamarkadan Eibarren: sasoi hartako jaietan ezinbestekoa izaten zen lagun-taldearekin batera zezen plazara joan eta argazkia ateratzea.
PLAZAOLA.

## Farmaziak

**BARIXAKUA 21**
**EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)

**ZAPATUA 22**
**EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**DOMEKA 23**
**EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**ASTELEHENA 24**
**EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**MARTITZENA 25**
**EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**EGUAZTENA 26**
**EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)

**EGUENA 27**
**EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)

**BARIXAKUA 28**
**EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)

**GAUEZ BETI,** 2024an,
**Lekunberri** (Isasi, 31)

## Telefono jakingarriak

| | |
|---|---|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 70 84 24 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Kirol Patronatoa | 943 20 32 40 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 900 17 11 71 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Eibar Ospitalea | 943 03 29 00 |
| Mendaro ospitala | 943 03 28 00 |
| Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Torrekua | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 944 33 33 33 |
| Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| Pesa | 900 12 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea | 943 54 39 38 |
| Alkohol. Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon / Alateen | 650 26 59 63 |
| Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak) | 699 37 75 20 |

## Hildakoak

- **Manuel Rodriguez Boada**. 100 urte. 2024-06-14.
- **Francisco Torres Frutos**. 81 urte. 2024-06-15.
- **Juan de los Toyos Garai**. 101 urte. 2024-06-15.
- **Celestino Kortina Leitio**. 86 urte. 2024-06-17.
- **Felix Arrizabalaga Irasuegi**. 89 urte. 2024-06-18.

## Jaiotakoak

- **Maia Alberdi Arizmendi**. 2024-06-11.
- **Wiam Moutaouakil Galvao**. 2024-06-11.



## Sorbak bedeinkatzeko meza

Aurten ere sorbak bedeinkatzeko meza ospatuko dute Azitaingo elizan, San Juan egunean, 10:30ean. Eibartar askok eusten diote ohiturari eta, diotenez, "bedeinkatutako sorbak etxe eta baserrietako ateetan ipintzen dira, hurrengo urteko San Juan bezperako suan erre arte. Udaren hasieran bedeinkatzen ditugun sorbek baserri eta naturarekin daukagun lotura gogoratzen digute eta, fededunok, eurengandik jasotzen dugunarengatik eskerrak eman eta zaintzeko konpromisoa hartzen dugu horrela".



## Eibarko Artisten Elkartekoak Logroñon egon dira asteburuan

Logroñora irteera egin zuten Eibarko Artisten Elkarteko kideek zapatuan. Autobusez bisita panoramikoa egin zuten hiriburutik, eta, horrez gain, erdigunea ezagutzeko aukera paregabea izan zuten, gida bikain batek lagunduta. "La chula" jatetxean bazkaldu zuten eta, eguna borobiltzeko, Errioxako Museoa bisitatu zuten.

## Blas Etxebarriaren bustoa ipini dute Errebalen, bere kalearen aldamenean

Errebalen, bere izena duen kalearen aldamenean ipini duten Blas Etxebarriaren bustoa inauguratu zuten zapatuan. Carlos Elgezua eskultore eibartarrak 1953. urtean egindako brontzezko burua Alfa enpresaren sarreran egon zen, San Andres pasealekuko lantegia bota zuten arte, eta aurrerantzean hau izango da bere kokaleku berria. Ekitaldian Blas Etxebarriaren familiakoak egon ziren (Argazkia: *Eibarko Udala*).



BG | BIC GIPUZKOA
UP! EUSKADI
Edificio Tekniker
Iñaki Goenaga kalea, 5. EIBAR
tel.: 943 00 09 99
www.bicgipuzkoa.eus bic@bicgipuzkoa.eus



## Munduko begirada koloretsuak olioan margotuta ikus daitezke Topalekun

Barixakuaz geroztik Mariluz Martinez Cenitagoya artista durangarraren *Miradas del mundo* izenburuko erakusketa bisitatu daiteke Topalekun. Ekainaren 23ra arte egongo da ikusteko moduan, egunero 19:00etatik 21:00etara, eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

## Herriko kirol-instalazioetako ordutegiak aldatuko dira Sanjuanetan



Jaiak direla-eta, ordutegi horietan zenbait aldaketa izango dira hilaren 23, 24 eta 25erako. Hiru egun horietan instalazioak bakarrik goizez zabalduko dira: Ipuruako kiroldegian, 09:00etatik 13:00ak arte, eta beste bietan, Unbe kirolgunean zein Orbea kiroldegian, ordubete gehiago iraungo dute instalazioek zabalik, 09:00etatik 14:00ak arte.



## Jardueraz betetako egitaraua prestatu du Udalak Harrotasunaren Egunerako

Ekainaren 28an Harrotasunaren Eguna ospatuko dela eta, Eibarko Udalak ekitaldi sorta bat antolatu du eguna ospatu eta LGTBIQ+ komunitateari babesa emateko. Sonia Archeli Berdintasun zinegotziak eta Andoni Zabala Kultura zinegotziak aurkeztu zuten egitaraua eguaztenean, eta adierazi zutenez, “egun koloretsua izango da, inklusioz eta entretenimenduz betea, eta jarduerak egongo dira egun osoan zehar, Untzaga plazan”. Ekainaren 28an, 11:00etatik 13:00etara, “Aniztasunak aberasten gaitu” izeneko tailerra egongo da, LGTBIQ+ pankartak egiteko. Azaldu dutenez, “aniztasunarekin eta LGTBIQ+ komunitatearen eskubideekin bat egin nahi duten guztiek parte hartu ahalko dute. Aukera ezin hobea izango da herritarrak elkartzeko eta inklusiozko eta errespetuzko mezuak sortzeko”. Ondoren, 13:00ean, LGTBIQ+ bandera igoko da Untzagan eta, jarraian, komunikatua irakurri eta elkarretaratzea egingo da. Bestalde, egunerako txapak eta zapiak atera dituzte, eta egunean bertan Untzagan banatuko dira, gerturatzen direnen artean. Sexu-askatasun eta aniztasunaren aldeko aldarrikapen-eguna jai-giroan amaitzeko, 22:00etan Asier Bilbao Show ikuskizuna hasiko da Untzagan. Ekainaren 28ko ekitaldiez gain, hilaren 27an "Ni naiz naizena" izeneko erakusketa egingo da Andretxean, eta Liburutegiarekin elkarlanean irakurketa-gida ere prestatu dute.




# Jaietarako beroketak eginda



*Breaking Eibar* **Eibarko IX. Break Dance eta New Style txapelketa egin zen zapatuan Errebal Plazan.**



**Eibarko Txaranga Egunaren lehen edizioak harrera paregabea izan zuen herrian.**

**ARGAZKIAK:
KULTURA - EIBARKO UDALA**



**Kezka Dantza Taldeak kudeatzen duen eskolako taldeek erakustaldi ederra egin zuten barixakuan, Dantzari Egunean.**



**Eibarko Musika Bandak ikuskizun bikaina eskaini zuen 'Eraztunen jauna' sagaren musikarekin.**

EUSKO LABEL
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada
Bidebarrieta, 20
Espezialistak plater prestatu eta haragi bikainetan
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
943 20 16 69
@Oberenaharategia
OBERENA HARATEGIA


Kultu
Zuloagatarren, 3
943 20 84 39
ARRATE KULTUR ELKARTEA
30. urteurrena
SAN JUAN ZORIONTSUAK!!
HORRETARAKO GAUDE-ETA!!
Pintxoen
alardearen
erreinua!

RPS 181/19
aldaz
hortz klinikak - clínicas dentales
943 36 63 77
LASARTE - TOLOSA - ELGOIBAR
TRATAMENDU GUZTIAK
ZENTRO BEREAN.
LEHENENGO BISITA ETA
RADIODIAGNOSIA DOAN.
ODONTOLOGIA ETIKOA.
Zure irribarrea
egingo
dugu



Eibarko Klub Deportiboko Pilota Eskolakoek San Juan torneoko finalekin amaitu zuten denboraldia .



Minbiziaren Aurka Gipuzkoan-ek antolatutako martxa solidarioan 1.000 lagun baino gehiagok hartu zuten parte.

# Aurreko asteburuko gehiago...

**ARGAZKIAK: KULTURA - EIBARKO UDALA**



40 talde inguruk hartu zuten parte zapatuan Unben jokatu zen futbol 7ko txapelketan. Txapelduna ABC'S taldea izan zen.



Roblesek Ereñari irabazi zion domekan jokatutako Casino Artista Eibarresen Sanjuanetako Txapelketaren hirugarren edizioko finalean.




GIPUZKOA
Ekin.
Gipuzkoa oparoagoa izateko.
Zaindu.
Pertsona guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituena.
Bizi.
Ondo eta duin bizi daitezen.
GIPUZKOA
Foru Aldundia





# Berbetan jaialdiak agurtu du ikasturtea

Joan zen eguenean agurtu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programen ikasturtea. Gora Bihotzak ikuskizuna ekarri du aurten ere ...eta kitto!-k Errebal plazara, sekulako giroa sortuz haur zein helduen artean. Ez zen aspertzeko tarterik egon, dantzatu, abestu, barre... denetarik egin zuten bertaratu ziren familiek, giro ezinhobean. Urritik aurrera izango da berriz ere Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetan izena emateko eta eskaintzen dituzten ekintzetan parte hartzeko aukera.

Gurasoak Berbetan familia- edo kuadrilla-giroa euskaldundu nahi duten familiei eskaintzen zaien programa da; eguneroko errutinak aldatu beharrik gabe, euskara aintzat hartu eta egunerokotasunean txertatzea da egitasmoaren helburua. Ongietorri, berriz, harrera eta elkarbizitzarako programa da, euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko programa. Gainera, familian eta lagun artean egiteko ekintza osagarri ugari eskaintzen dituzte bi egitasmoek. Urte osoan eman daiteke izena eta doakoak dira.



ELEKTRIZITATEA
Urki s.a.
INSTALAZIOAK
BOBINATUAK
TRANSFORMADOREAK
Arragueta zeharbidea, 1
Tel. 943 12 05 85 / 72
Faxa. 943 20 38 53
transfab@electricidadurki.com

C&J
CERRAJEROS
665 590 119
www.cjseguridad.com
cjcerrajeros@gmail.com
Tel. 943 107 770
Juan Gisasola, 4
EIBAR
Tel. 943 132 514
Araba, 26
ZARAUTZ



## EKAINAK 21, BARIXAKUA

- **17:00etan** Ipurua kiroldegian, XX. Eibarko Hiria squash sariaren kanporaketa fasea. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.
- **21:30etik aurrera**, Untzaga plazan, LILO eta BULEGO taldeen kontzertua.
- **23:00etatik 03:00etara,** Untzaga plazan, alkohol eta drogen kontsumoaren gaineko informazio eta prebentziorako karpa, SASOIAren eskutik.
- **23:00etatik 02:00etara,** Untzagan, Testing Programa, Ai laiket.



## EKAINAK 22, ZAPATUA

- **09:00etan**, Ipurua kiroldegian, XX. Eibarko Hiria squash sariaren oinarrizko koadroa. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.
- **09:30etik 20:30era**, Errebal plazan, jolasen simulazio tailerra (modelismoa, eszenografia eta mahai-jokoak), Odisea elkartearen eskutik.
- **16:00etan**, XX. Eibarko Hiria squash sariaren finalak. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.
- **19:00etan,** Anbulategiko plazatik abiatuta, kalejira Africa Baj Yay taldearekin.
- **23:00etatik aurrera**,Untzaga plazan, LA PEGATINA taldearen kontzertua.
- **01:00etatik 04:00etara** Dantz Point musika elektronikoa Alai DJarekin eta Elena Barker Djarekin.









## EKAINAK 23, DOMEKA





- **09:00etan,** Arraten, Eibarko plater tiro Sari Nagusia.
- **10:30ean**, Ospitalean, Santuari zapia jarriko zaio Kaleetan kantuz taldearen laguntzarekin.
- **11:00etan**, Untzagan hasita, Sanjuanetako Zortzikoa, Usartza Txistulari Bandaren eskutik eta musikarien laguntzaz.
- **12:00etan**, Untzagan, kuadrillak bildu, eta Ustekabe fanfarrearekin kalejira Urkizuraino. Antolatzailea: Gaste.
- **13:00etan**, Estaziño kalean, ongietorria Lizarrako Dultzaineroei, eta kalejira Untzaga plazaraino, Udalbatza, aurten omendutako pertsona eta taldeak eta kuadrillak lagun dituztela.
- **13:30ean**, Udaletxetik, pregoia eta jaiei hasiera emateko txupinazoa.
- **13:45ean,**Udaletxean, Sanjuanetako kartel lehiaketaren eta alkohol gehiegikeriaren kontrako pegatina lehiaketaren sari banaketa.
- **17:00etan,** Untzaga plazan, kuadrillen jolasak USTEKABE fanfarrearen laguntzarekin.
- **17:00etan,** Astelena frontoian, sanjuanetako pilota jaialdia.

---






- **17:00etatik 20:00etara**, Untzagan Klarion tailerra: Sanjuanetako munduko kartel haundiena, Lekim Animazioaken eskutik.
- **17:30etik 20:30era**, Urkizun, umeentzako puzgarriak.
- **19:00etan**, Bizikleta plazan, “Dale Ramon” kale antzerkia Trapu zaharra konpainiarekin.
- **19:00etan**, Karmengo elizan, Salbea Parrokiako abesbatzarekin.
- **19:30ean**, Untzagatik abiatuta, kalejira Irulitxa fanfarrearekin.
- **19:45ean**, Bizikleta plazan, Txokolatada umientzat.
- **22:00etan**, Untzagan (harmailen aldetik) Danborradaren irteera, Eibarko Cielito Musika Bandaz lagunduta.
- **23:15ean**, Untzagan, Nele Dantza - Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia.
- **23:30ean**, Untzagan, San Juan Sua, ...eta kitto! elkartearen eskutik, eta Queimada, As Burgas Casa Cultural de Galiciak antolatuta.
- **00:00etan**, Untzagan (Udaletxe plazan) San Juan Kantua eta jarraian Danborradaren Alardea, Eibarko Cielito Musika Bandaz lagunduta.
- **00:15etik 04:00etara**, Untzaga plazan, berbena Lisker taldearekin.










## EKAINAK 24, ASTELEHENA

- **08:30ean**, Kalejira Lizarrako Dultzaineroekin.
- **10:30ean**, Azitaingo ermitan, Salbea.
- **11:00etatik 14:30era** eta **17:00etatik 20:00etara**, Untzaga Plazan, "Puzzleak eta buruhausgarriak" jolas parkea, Puzzle-kaxa taldearen eskutik.
- **12:00etan,** Karmengo elizan, meza kantatua Parrokiako abesbatzarekin.
- **12:45ean,** Toribio Etxebarrian, Eibarko Cielito Musika Bandaren San Juan kontzertua. Euria eginez gero, Errebal plazan.
- **18:00etan**, Errebal plazan, V. San Juan City secrets, makro-ginkana kuadrillentzat, Itzamnaren eskutik. 2012. urtea baino lehenago jaiotakoentzat.
- **19:00etan**, Untzaga plazan, "Mute" kale antzerkia Orain bi konpainiarekin.
- **19:00etan**, Urkizun abiatuta, Umeen Danborrada, Ustekabe fanfarrearekin.
- **19:30ean**, Bizikleta plazatik abiatuta, kalejira LATUNA BANDO fanfarrearekin.
- **20:30ean**, Untzagan, umeen pregoia, Umeen Danborradako Danbor Nagusiak irakurrita, eta Alardea.
- **22:00etan**, Erromerixa Untzaga plazan, Jainaga eta Narbaizaren eskutik.
- **23:30ean**, Soka Dantza Untzaga plazan, Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldearekin.
- **00:00etan**, Suzko erroberak Global Foc SL Pirotecniaren eskutik.
- **00:15etik 03:00etara**, Untzaga plazan, berbena Jamaica Show orkestrarekin.










**Ondo pasa Sanjuanetan!**
























## EKAINAK 25, MARTITZENA

- **08:30ean**, Kalejira Lizarrako Dultzaineroekin eta goiz-erestia.
- **11:30ean**, San Juan XXIX. marmitako lehiaketa, Untzaga plazan.
- **11:30etik 14:30era** eta **18:00etatik 20:00etara**, Untzaga plazan, “La petite caravane” kale antzerki familiarra, Adrian Conde antzerki taldearen eskutik.
- **17:30etik 20:30era**, Urkizun, umeentzako puzgarriak.
- **18:15ean,** Urkizutik, Bergarako Erraldoi taldea, Elgetako Buruhandien taldea eta Lizarrako Dultzaineroen kalejira.
- **19:00etan,** Bizikleta plazan, “Welcome” kale antzerki ikuskizuna Ganso konpainiarekin.
- **19:30ean**, Untzagan, Euskal Jaialdia, ...eta kitto! Elkarteak antolatuta.
- **19:45ean**, Bizikleta plazan, Txokolatada umeentzat.
- **21:30ean**, Untzaga plazan, Bilbainadak Bilbao Mapa Mundi taldearen eskutik.
- **23:00etan,** Suzko erroberak Pirotecnia Vulcanoren eskutik.













**Ondo pasa Sanjuanetan!**


AMETSA
Gin Bar
Jaietan gozatu
*Ametsa Gin Bar*
erara

casa
BANAKA
·BAR·
Calbeton, 26
Bueltan dira Sanjuanak!!!
GOZATU EGIZUZ GUREKIN!!!

Ondo pasa!!
Jai zoriontsuak!
Arkupe
Taberna
Isasi, 2 689 057 149




Goizeko 07.30etik zabalik
ondo pasa Sanjuanak eta Sanpedroak!!
bar manuel
(JUANITO)
Urkizu, 5 943 12 16 57






## EKAINAK 27, EGUENA

- **16:30ean**, Karmen kaleko parkean, Txokolatada umeentzat.
- **17:00etan**, Karmen kaleko parkean, umeentzako jolasak.
- **19:00etan**, Karmen kaleko parkean, NAITA produkzioak.
- **18:00etan**, Andretxean, “Lo normal” ikuskizuna, Menudas pájaras taldearen eskutik.



## EKAINAK 28, BARIXAKUA

- **11:00etatik 13:00etara,** Untzaga plazan, LGTBIQ+ edukia duten pankarten tailerra.
- **12:00etan**, Karmen kaleko parkean, toka eta igel txapelketa.
- **13:00etan**, Untzaga plazan, LGTBIQ+ banderaren igoera.
- **18:00etan**, Karmen kaleko parkean, Trio Medianoche  taldearen musika emanaldia.
- **19:00etan**, Karmen kaleko parkean, bakarrizketa Felix El Gatoren eskutik.
- **21:45ean**, Karmen kaleko parkean, TUKAN orkestraren emanaldia.
- **22:00etan**, Untzaga plazan, Asier Bilbao Show.

## EKAINAK 29, ZAPATUA

- **12:00etan**, Karmengo elizan meza, Eibarko KORO GAZTEA taldearekin.
- **16:00etan**, Untzaga plazan, XXXVIII. Eibarko Hiria Xake partida azkarren txapelketa, Jose Mari Kruzetaren Oroimenez. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.

Guria
elektrizitate-zerbitzu integrala
Matxaria, 2 – 7 pabiloia
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 700 895
electricidadguria.com

ZELAIA
FRUTAS Y VERDURAS
ZELAIA
Fruta eta barazki freskoenak eska-eskura! Aprobetxatu!!
Fermin Calbeton, 6
Tel. 943-048535

# Bakearen aldeko sua eta dantzak San Juan bezperan

Mundua sutan dago. Albiste lazgarriak iristen zaizkigu handik eta hemendik. Gurean, zorionez, sua San Juan jaietan bakarrik ikusi ohi dugu eta, gainera, gertatzen den guztiaren inguruan hausnartzeko aukera ematen digu garrak ikusten ditugun bitartean.

Urtero bezala, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta, San Juan Sua egingo da San Juan bezperan, ekainaren 23an, Untzagan (harmailen aldean). Bertan, herriko hainbat lagun eta erakunde omenduko dituzte eta, aurretik, Eibarko Udal Dantza Akademiakoek dantzak egingo dituzte suaren lehen txinpartak pizteko.

Omenduei dagokienez, Eibarko Klub Deportiboa (100 urte bete ditu aurten), Mugi Panderoa musika taldea (bere 10. urteurrenean), mila saltsatan dabilen Mireia Alonso sukaldaria, Josu Mugika (ibilbide luzeari amaiera eman dion dantzaria eta irakaslea), eta emaitza arrakastatsuak lortu dituzten SD Eibar (CD Vitoria eta emakumezkoen B taldeko ordezkariak), Eibartarrak FT eta CD Urki futbol taldeak izango dira protagonista eta sua piztuko dutenak.



Eibarko Udal Dantza Akademiakoen dantzak izango dira sua piztu aurretik.

### Salba dezagun Bambi

Sua piztu aurretik, Eibarko Udal Dantza Akademiak, urtero moduan, Untzaga plaza hartu eta dantzak eskainiko ditu. Urteko une hunkigarrienetakoa izaten da, San Juanetako momentu garrantzitsuenetakoa baita.

Aurten, askotan egin bezala, Dantza Akademiak gai humanitario batean jarriko du arreta dantzak egiteko orduan. “Dantzaren bidez, gatazka armatuek haurtzaroan duten eragina ikusarazi/salatu nahi dugu. Horiek ordaintzen dute preziorik altuena. Betiko orbain emozional eta fisikoak utziz. Koreografia hau gatazketan eta krisietan harrapatuta dauden eta errugabetasuna kentzen dioten haur guztiei eskaintzen diegu. Salba dezagun Bambi! Ez dezagun bizirik hiltzen utzi!”, diote dantza akademiatik.



# Karroza, mendeurrena eta jaiak handitasunez ospatzeko apainduta

Leire Kareagak 27 urte daramatza danborradaren karroza egiten. “Urtean bi karroza egiten dira. Bata Gabonetan, Erregeen Kabalgatarako; eta bestea sanjuanetan”, azpimarratzen du. “Kabalgatan gai baten inguruan apaintzen dugu eta sanjuanetan omenduen inguruko lanketa egiten dugu. Urte hauetan guztietan herriko talde ugariren omenezko karrozak egin ditugu”, diosku Leirek. Lehen, Marina Barrenarekin egiten zuen lanketa eta orain Iratxe Unanue du bidelagun.

Aurtengo omendua Eibarko Klub Deportiboa izango da bere mendeurrenean, eta kluba osatzen duten batzordeak irudikatu nahi izan dituzte karrozan. “12 batzorde dira guztira eta 12ak ordezkatzen saiatu gara. Ez da erraza izan denak elkarrekin ikusaraztea”, kontatu digu Iratxek. “Karrozak ikuspuntu ezberdinak dituela esan dezakegu”, zehaztu digu Leirek. “Alde batetik eta bestetik, batzordeak irudikatuta ikusi ahal izango dira. Hala nola, atletismoa, txirrindularitza, xakea, urpekoak, mendia, pilota, Kezka...”.

Sortzaileen berbetan, xehetasun asko dituen karroza izango da. “Agian, ibilbidean zehar zaila izango da zehaztasun guztiez jabetzea. Tontorrean Urkoko buzoia irudikatu dugu eta, hortik jaisten bagara, Urkoko gailurra eta koba ikusi ditzakegu (espeleologiari keinu eginez)”, diosku Leirek. Bere ustez, karroza dinamikoa da eta, “arina izan behar denez, material arinak erabiltzen ditugu (goma-aparra, polikarbonatoa...)”.



100 urte bete dituen Eibarko Klub Deportiboa omenduko dute aurtengo danborradaren karrozan.

### Umeekin elkarlanean

Nagusien danborradan ateratzeaz gain, hurrengo egunean egingo den umeen danborradan ere ikusi ahal izango dugu karroza. “Denen gustukoa izatea espero dugu”, diosku bikoteak. Gainera, azpimarratu dute Udal Margo Eskolako zenbait ikasle gaztek ere parte hartu dutela karrozaren sorkuntzan. “Pieza batzuk egin dituzte eta bitxia gelditzen da”, Leireren berbetan. “Gure Instagrameko kontuan (@eibarkomargoeskola) erakutsiko dugu umeek nolako lana egin duten. Lan polita da eurentzat. Izan ere, plantillak eta eskalak nola egiten diren, hiru dimentsiotako piezak nola muntatzen diren eta materialak nola birziklatzen ditugun ikasten dute. Urte batetik bestera materiala birziklatzen dugulako”.

Sortzaileek azaldu digutenez, piezak handiak izaten dira, “altueran 4 metro ingurukoak”. Dena dela, eurek are handiagoak izatea nahiko lukete. “Tamaina bikoiztea nahiko genuke, dotoreagoak izango liratekeelako, baina Eibarko kale estuek ez dute horretarako aukerarik ematen”, aipatzen du Leirek. “Gainera, kontuan eduki behar da umeen danborradan karrozan haurrak doazela eta, oso pieza handiak eginez gero, umeak ez genituzkeela ikusiko".

# AUTOEN GEHIGARRIA

**2024ko EKAINA**

## Iritsi da bidaiatzeko sasoia



Autoz bidaiatu aurretik, garrantzitsua da zenbait azterketa egitea, bidaia segurua eta gorabeherarik gabea izan dadin. Hona hemen aholku batzuk:

1. Berrikusi olioaren, balazta-likidoaren, hozgarriaren eta haizetako-garbigailuaren uraren mailak.

2. Egiaztatu pneumatikoen presioa, eta ziurtatu egoera onean daudela.

3.- Egiaztatu argien, keinukarien eta balazten funtzionamendua.

4.- Berrikusi bateriaren eta balazten egoera.

5. Egiaztatu larrialdi-kita eraman behar duzula oinarrizko tresnekin, seinaleztapen-triangeluekin eta lehen laguntzako botikinarekin.

Bestalde, askotan, ibilbidea planifikatzean, behar den guztia paketatzen eta dena txukun edukitzen saiatzen gara, baina funtsezko alderdi bat ahazten dugu: atseden hartzea. Nekeak zirkulazio-istripuen %20 inguru eragiten du.

Deskantsatuta egoteak bidaiaz oso-osorik gozatzeko aukera ematen digu, eta espero ditugun esperientzia berriei adi egoteko aukera ematen digu. Paisaiak hobeto ikusteko, maite ditugunen konpainiaz gozatzeko eta une oro ahalik eta gehien aprobetxatzeko aukera ematen digu. Beraz, bidaia luze bati ekin aurretik, funtsezkoa da behar adina atseden hartu dugula ziurtatzea. Saiatu aurreko gauean ondo lo egiten, saihestu edari bizigarriak (kafea, kafeina...), eta egin etenaldi erregularrak bidaian, atseden hartzeko eta hankak luzatzeko.









# Segurtasuna gauza guztien gainetik dago

135 zentimetrora iristen ez diren 12 urtetik beherakoek nahitaez erabili beharko dute beren neurri eta pisuari egokitutako euste-gailu bat. Haurrak hazi ahala, Haurrak Atxikitzeko Sistema egokitu beharko dugu.

- Aukeratu modeloa adingabekoaren pisua, altuera eta adina kontuan hartuta.

- Kontuan izan uhalak haurraren gorputzera ondo doituta geratzen direla.

- Egiaztatu sistema homologatuta dagoela, etiketen bitartez.



- Informa zaitez modelo bakoitzaren instalazio-sistemaz, eta jarraitu beti muntaketa-argibideei, eta egiaztatu aulkia tinko eusten diola autoaren eserlekuari.

- Atzeko erdiko eserlekuak kokapen onena eskaintzen du, aurrealdeko edo alboko talka batean lekurik seguruena baita.

- Ahal dela, atzeko eserlekuak aukeratu behar ditugu beti seguruenak izateko, baina, haurra aurrean badoa, *airbaga* desaktibatuta eduki behar da, haurra martxaren kontrako noranzkoan badoa.

- Komeni da 150 cm-ra arte haurrek haurrei eusteko sistema erabiltzea.

# Non kokatu gure maskotak?

Maskota batekin bidaiatzen duzunean, non kokatuko duzu gidatzean interferentziarik ez izateko? Maskotak gidariaren eta bidaiarien segurtasuna arriskuan jartzen ez duen lekuan bidaiatu behar du, eta beti behar bezala lotuta. Adituek diotenez, gure maskota autoan eramateko modurik seguruena bere garraiobidea edo *transportín* delakoa da. Maskota txikia bada, garraiolaria ibilgailuaren zoruan jarriko da aurreko jarlekuen atzean; handia bada, maletategiaren barruan bidaiatuko du (martxaren norabidearen zeharka).












# GAURSA

# Iritsi dira Gaursa-Eibarrera Renault, Dacia eta Nissanen nobedadeak

Gaursak Eibarren duen instalazioan merkaturatutako Renault, Dacia eta Nissan automobil-merkatuko segmentu guztiak estaltzen dituzten modelo berriak merkaturatzen ari dira.

Renaultek hainbat ibilgailurekin berritu eta zabaldu du bere gama: Renault E-Tech % 100 elektrikoa, Rafale coupé itxurako SUV-a, R5 ikonikoa, barne-espazio handiko Symbioz eta Captur hiri-SUVa. %100 elektrikoak, hibridoak eta errekuntzazko bertsioetan merkaturatzen dira, ECO eta 0 emisio etiketekin. Dacian, Duster berriak bere 3. belaunaldia berretsi du, eta lur orotako ibilgailu praktika izanik, arrazoizko prezioan. Nissanek bere supersalmenta modeloa berritu ditu, Qashqai-a, diseinu modernoagoa ematen dion parrilla deigarriarekin, eta Juke, barruko erosotasuna hobetu eta kirol bertsio berriarekin, IKON.

Erosotasunean, segurtasunean eta teknologian azken nobedadeak dituen produktu-sorta hau erosketa-esperientzia pozgarriaz gozatzeko bezeroei aholkuak ematen dizkien Gaursa-Eibarko profesional-taldeari gehitzen zaio.

## »» ESKAINTZA BEREZIAK ««



### Renault Captur berria
E-Tech Full Hybrid

Hilean 150,00€*tik aurrera

37 hilabete
Sarrera 6.905€, azkeneko kuota 18.235,61€

- Urtebeteko arrisku orotako asegurua frankiziarekin
- Bermea: 5 urte edo 80.000 km*
- Mantentze-lanak: 5 urte edo 80.000 km



### Dacia Duster GLP berria
Inoiz baino Duster-ago

Hilean 99,00€*tik aurrera

37 hilabete
Sarrera 7.298,40€, azkeneko kuota 13.313,96€

- Urtebeteko arrisku orotako asegurua frankiziarekin
- Bermea: 7 urteko edo 120.000 km*
- Mantentze-lanak: 3 urteko edo 50.000km



### Nissan Qashqai berria
Zure bizitza guztietarako hibrido

Hilean 249,00€*tik aurrera

37 hilabete
Sarrera 5.950 €, azkeneko kuota 20.379€

- Urtebeteko arrisku orotako asegurua frankiziarekin
- Bermea: 3 urteko edo 100.000 km*
- Mantentze-lanak: 3 urteko edo 100.000 km

**HONELAKO ESKAINTZA GEHIAGO**
**Gaursa, Otaola Hiribidea 22 Eibar**

Aholkulari komertzialak
Renault/Dacia 674 801 717 // Nissan: 637 045 103

@grupogaursa

**gaursa.com**

* Eskaintza baliagarria RCI Banque SA-rekin, Espainiako sukurtsala, preference bidez finantzatutako ibilgailuentzako. Kontsultatu baldintzak. Baliozkoa 2024/06/30era arte

# Alergiak eta gidatzea: etsai isila

Esaten denez, autoa erabat garbi dagoenean, metro karratuko 10 milioi partikula inguru aurki ditzakegu. Autoan, berez, asko kostatzen da gure arnas sistemari eragiten dioten partikulak kentzea; era guztietako gainazalak daude, eta autoaren airearen kalitatea klimatizazio-sistemako iragazkien egoeraren araberakoa da.



Agente horien kopurua murrizteko oinarrizkoa da, edozein ikuspegitatik, iragazkiak egoera ezin hobean eramatea, lurrungailuan egitura-metaketarik sor ez dadin (eta haizagailuaren edukiera %70eraino murriztu dadin). Onena urtean behin edo 15.000 km-tan behin aldatzea izango litzateke, baina lehenago egin beharko litzateke aire girotua piztean usain arraroa sumatzen badugu.

Leihatilak itxita edukitzea ere oso lagungarria da, edo eguzkitako betaurrekoak eramatea aire giroturik ez badugu eta horiek jaistera behartuta bagaude. Komeni da, halaber, aginte-mahaian pilatzen den hautsa maizago garbitzea, eserlekuak sarriago xurgatzea eta gure maskotak uzten dituzten ileak kentzea. Eta, amaitzeko, bizi garen zonan polen mailen berri izatea ez zaigu gaizki etorriko...

# Garbiketa

Jakina denez, debekatuta dago autoa bide publikoan garbitzea. Garbitzeko leku pribatua baduzu, onena da autoak garbitzeko xaboi berezi bat eta esponja bigun bat izatea. Urberritu ondoren, dena mikrozuntzezko baieta batekin lehortu behar da, txapa marratu gabe geratu den zikinkeria jasotzen duena.

Autoaren garbiketa egiteko leku pribaturik ez badugu, kontu handiz ibili behar da garbiketa-tunela aukeratzean. Auto askok mikro-marra ugari izaten dituzte, eguzkiak alde batean edo bestean karrozeriaren gainean jotzen duen heinean ikusten direnak. Mikro-marra horiek garbiketa-tunel batzuen erabilera metatuaren ondorio dira, eta horiek kentzeko (dagoeneko oso sakonak egin ez badira), autoaren karrozeriari leunketa bat egitea eskatzen dute.

EZ DA PROMOA, BENETAN EGIA BAIZIK.



Eibarko PREZIORIK merkeenak...
...MARKA guztietako neumatikoetan

Carrocerías ARANE
Arane, 6 - 3.
Tel. 943 70 26 20
Fax. 943 12 19 54
arane.carrocerias@hotmail.com

Zure betiko KARROZERIA...



... orain MEKANIKA zerbitzuarekin

ACITAIN, S. A.
www.acitain.com
ZERBITZUGUNEA
• 24 ORDUKO ZERBITZUA
• Gasoleoen zuzeneko banaketa
• Garbiketa automatikoa eta presioarekin
AVIA
Tel. 943 12 16 62 Tel./Faxa. 943 12 18 62 acitain@gmail.com

ek!
Zure publizitatea herriko aldizkarian
688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

**Ondo pasa Sanjuanetan!**




























# Omenduak, ondo egindako lanaren errekonozimendua

Urtero bezala, San Juan jaiak aprobetxatuz, herriko zenbait erakunde eta lagunek ondo merezitako errekonozimendua jasoko dute egindako lanarengatik. Horrela, jaien inguruko hainbat ekitalditan hartuko dute parte Eibarko Udalak kaleratutako zerrenda honetakoek: S.D. Eibar, Eibartarrak, Urki eta Eibarko Klub Deportiboak erakundeen arloan, eta Mireia Alonso, Josu Mujika eta Jose Agustin Larrañagak maila pertsonalean.

EIBARTARRAK

S.D. EIBAR

C.D. URKI EIBAR

EIBARKO KLUB DEPORTIBOA

Nahiz eta gizonezkoen lehen taldeak bere helburua lortu ezin, S.D. Eibar klubarentzat denboraldia ikaragarria izan da, emakumezkoen zein gizonezkoen bigarren taldeek mailaz igotzea lortu baitute. Horrela, CD Vitoria filialaren izenean, Unai Ayala jokalaria eta Edorta Silva delegatua izango dira ordezkariak; eta emakumezkoen B taldea Irati Etxeberria eta Intza Apellaniz jokalariek ordezkatuko dute.

Futbolarekin jarraituz, Eibartarrak-eko talde nagusiak Erregionaleko Gorengo Mailara igo du eta, Iñaki Osa presidentearekin batera, Jon Agirrebeitia eta Josu Etxegarai jokalariak izango dira ekitaldietan. Urki FT-ko beste bi taldek ere igo dute mailaz eta hor, Issbel Diaz entrenatzailearekin batera, Koldo Maiz eta Imanol Maza jokalariek osatuko dute ordezkaritza.

kili_klik
kili klik
argazkilaritza fotografía
www.kiliklik.eus
646114443 · kilimakoortzen@gmail.com
Indalecio Ojanguren 1 behea

LEGE AHOLKULARITZA / AUDITORIA
Gaurve
Tfnoa. 943 202 461 Faxa. 943 201 125
Fermin Calbeton, 13-15 www.gaurve.es



Josu Mujika (Biraka dantza taldea).



Mireia Alonso (Zaporeak elkartea).



Jose Agustin Larrañaga (Artisten Elkartea).

Aurten mendeurrena bizi duen Eibarko Klub Deportiboa ere ezin alde batera laga, ibilbide luzea egin baitu 100 urte horietan herriaren alde egindako hainbat ekitaldik erakusten duten bezala. Iñaki Osoro presidentea eta Aresatz Usobiaga presidenteordea izango dira aurpegia ipiniko dutenak San Juan jaien inguruko ekitaldietan.

Azkenik, bada hirukote bat, bakoitzak bere esparruan, ahalegin berezia egin dutenak azken urteotan, emaitza paregabeak lortuz herriaren garapenean. Hor ditugu Mireia Alonso sukaldaria, Zaporeak ekimenaren alde jo eta su lan egiteaz gain, Lesbosera laguntzera ere joan izan dena; Josu Mujika dantzaria, Biraka taldearekin egindako hainbat proiektutan eibartar askori euren onena ematera bultzatu diena; eta Jose Agustin Larrañaga idazle eta artista, Eibarko Artisten Elkarteko presidente karguan urte dezente eman dituena.

**Kirolak, kultur arloak eta eskuzabaltasunak protagonismo nagusia izan dute omendu guztiek herriaren alde azken urteotan egindako lan mardulean**

Omenduak ez dira faltako Sanjuanetako zenbait ekitalditan, hala nola, Estaziñoko dultzaineroen harreran, udaletxeko pregoian, San Juan Suan, soka-dantzan... Zorionak! Hainbat arlotan nabarmendutakoek ondo merezita baitute herritarron errekonozimendua!



# Inoizko danborradarik goiztiarrena izango da

Aste honetan egin dituzte azken entseguak aurtengo sanjuanetako bi danborradetan parte hartuko duten haur eta helduek, apirilaz geroztik astero entseguak egiten ibili eta gero. Aurten 96 urte beteko dituen San Juan bezperako danborradak berritasun bat baino gehiago izango du, baina garrantzitsuena irteera-ordua aurreratu dutela da: 22:00etan hasiko da, gauerdia pasatuta amaitzeko.

Entseguetako bideoa

Aurtengo helduen danborrada Untzagako beste plazan, harmailen aldean hasiko da, udaletxeko plazan egongo den *Marruko* kanoiarekin salba bota eta jarraian. Bertan *Diana* eta *Idiarena* joko dituzte, eta *Hau dek hau* piezaren erritmora hasiko dute kalejira, 22:15ean. Betiko ibilbideari jarraituko diote aurten ere, eta beti bezala bidean geratzen joango dira. Calbetonetik Urkizura bitartean, lehen geldialdia San Andres elizan egingo dute, eta Urkizurako bidean *Mutriku Herria, Himno Urnieta, Tatiago* (San Agustin) eta *Praskuarena* joko dituzte. Behin Urkizura ailegatzen direnean, atsedenaldi txiki bat egingo dute, eta 23:00 inguruan, *Diana* txikiaren ondoren, kalejiran irtengo dira berriz ere, *Hau dek hau* kantuarekin. *Arragueta Kalian* eta *Tatiago* jo eta gero, Errebalen *Polka* eta *Retreta* joko dituzte, eta *Praskuarena* kantuarekin jarraituko dute, Toribio Etxebarria kaleruntz. Bertan *Eibarko Martxa* (Alperrak) eta *Debako Martxa* eskaini eta gero, Untzagarako bidea hartuko dute, *Praskuarena* jotzen duten bitartean. Udaletxe







**Aurten, helduen danborradarako azken entsegua Eibarko Musika Bandarekin batera egin dute estreinekoz. Martitzenean elkartu ziren partaide guztiak Errebal Plazan, joko dituzten kantuei azken errepasoa emateko.** SILBIA HERNANDEZ.

pareko plazara gauerdian sartzea dago aurreikusita, Eibarko Musika Bandarekin batera, 00:00etan *San Juan Himnoa* eskaintzeko. Eta, alkateak *Diana* zuzendu ondoren, azken piezak joko dituzte: *Donostiako Martxa*, *Kosakos del Kazan*, *Konparsa de viejas* eta *Pantxika*. 00:30ean *Marrukoren* kanoikada bigarrenez bota eta, *Tatiagorekin* amaitzeko.

**Umeen danborrada Urkizutik abiatuko da hurrengo egunean**

Umeen danborrada, betiko lez, San Juan egunean egingo da. Parte hartuko duten 175 umeak 19:00etan irtengo dira, Urkizutik, Ustekabe txaranga eta Uhiñaken laguntzarekin Untzagaraino kalejiran joateko. Eta hantxe, harmailen aldeko plazan, amaituko da aurten ere umeen danborradaren alardea.

**23an 22:00etan hasiko da helduen danborrada, eta 24an 19:00etan abiatuko da umeena**












# Jaietan antzerkia kalera ateratzen da

Kaleak jendez gainezka egoten dira San Juan jaietan eta festa giro bero horretan antzerkiak ere tokia izaten du. Festak, kulturaz janzten bada, beste zapore bat hartzen duelako. Are zapore dastagarriagoa.

**'Dale Ramon'**

'Trapu zaharra' konpainiarekin hasiko da antzerki eskaintza, hilaren 23an, 19:00etan. 'Dale Ramon' ikuskizuna eskainiko du umorez beteko duen Eibarko Bizikleta plazan. Konpainiak horrela azaltzen du ikuskizuna: "Ortiz Bunkerizatuak enpresak bere 5 izarreko bunkerra promozionatzeko 'Beldurrak babesten gaitu' eslogana erabiliz herriz herriko lehiaketa bat antolatu du 'Arrastaka irabazi' lelopean. Oraingoan, lehiakidea Ramon Uriarte dugu, eta amaiera arte gogor borrokatuko da irabazle izateko. Baina azkenik ezer ez da dirudiena. Zergatik?".

**'Mute'**

'Orain Bi' konpainiak 'Mute' ikuskizuna eskainiko du hilaren 24an, 19:00etan, Untzagan. Taldeak antzerkia eta zirkoa uztartzen ditu eta 2022an sortutako ikuskizun arrakastatsua ekarriko digute. Lanak 'Euskadiko ikuskizun onenaren saria' irabazi zuen.

Ikuskizun honetan mutazioaren kontzeptuarekin jokatzen dute eta, horiek adierazteko, antzerkigintzako eta zirkoko elementuak erabiltzen dituzte. "Mutazioa etengabeko zerbait da. Ez daitezela zomorroak bakarrik mutatu. Muta ditzagun egiturak, bai eta gu, pertsonak ere, aurrera egiten jarraitzeko, urrunago, gorago, iristeko; are eta zailagoa den horretara!", diote.

**'La petite caravane'**

Adrian Conde artista asturiarrak XX. mende hasierako antzokien esentzia ekarriko digu ekainaren 25ean, goiz eta arratsaldez (11:30etik 14:30era eta 18:00etatik 20:00etara), Untzagara, 'La petite caravane' proposamenarekin.

Antzoki txiki horretan magia, txotxongiloak, itzalen antzerkia, zuzeneko musika eta bestelakoak gertatzen dira. 25 lagun besterik ez dira sartzen eta ikuskizun bakoitzak 15 minutuko iraupena izango du.



Mende bat atzera egingo dugu 'La petite caravane' antzokian.

**'Welcome&Sorry'**

Kale-antzerkiarekin amaitzeko, Ganso konpaniak 'Welcome&Sorry' ikuskizuna eskainiko du 25ean, 19:00etan, Eibarko Bizikleta plazan. Bertan, antzerkiaren bi maitalek 'Hamlet' antzeztuko dute, baina bien artean egin beharko dute antzerkiaren lan guztia, baita teknikariena ere. Nola moldatuko dira? Umorea ez da faltako!



ESPAZIO GEHIAGO MEREZI DUZULAKO
ARRATE HOMES · EIBAR
Errebal plaza ondoko
eraikuntza berriko etxebizitzak.
Garajea · Gimnasioa
Gourmet aretoa · Trastelekua
Zatoz Neinor Store-ra
Bidebarrieta Kalea 6, Eibar
ETA EZAGUTU GURE PROMOZIO BERRIAK
Neinor HOMES
900 11 00 22 · neinorhomes.com




EIBAR
Hipermerkatua
Laguntzarekin
EROSKI
zurekin
SANJUAN zoriontsuak!!!

# Erritmoz beterik mota guztietako musikekin

Musika eskaintza zabala izango dugu aurtengo San Juan jaietan. Gaurtik hasita hilaren 25era arte, mota guztietako doinuak izango ditugu kalean eta zuzeneko musikaren magiaz gozatzeko aukera izango dugu egunotan. Txosnagunea albo batera lagata (hurrengo orrietan dator informazioa), jaietan izango dugun eskaintza musikala duzue jarraian.

Gaur gauean, 21:30etik aurrera, San Juan jaietan murgiltzen hasteko aukera ezin hobea izango dugu Untzagan. Izan ere, Lilo eta Bulego taldeek zuzenekoak eskainiko dituzte, euskal musika eszenan bogan dauden doinuak ekarriz.

**Lilo** taldea 2020an Iruñearrian jaio zen Maria Mateo taldeko abeslariaren abestiei musika jartzeko asmoz. Taldearen kantetan pop doinuak dira nagusi, nahiz eta rock eta indie estiloak ere uztartzen dituzten. Abestiak, orokorrean, euskaraz egiten dituzte eta gai ezberdinak jorratzen dituzte giro intimista sortuz.

**Bulego**ri buruz gutxi dago esateko, aski ezaguna baita Azkoitiko taldea. Gainera, Tomas Lizarazu abeslariarekin egoteko aukera izan dugu eta hurrengo orrietan duzue berarekin izandako elkarrizketa irakurtzeko aukera.

Sanjuanetan urtero izaten dugu **Africa Baj Yay** taldeak 19:00etan anbulatorioko parketik kalejira eskaini ondoren, **La Pegatina** taldeak hartuko du bihar Lilo eta Bulegoren lekukoa Untzagako eszenatokian. Talde kataluniarraren ikuskizuna 23:00etan hasiko da eta publiko orokorrarentzat hain ezagunak diren abestiak joko dituzte bertan: 'Mari Carmen, 'Y volar' eta 'Lloverá y yo veré', adibidez.

Kataluniarrek 20 urtetik gora daramatzate musikaren munduan eta runba eta ska doinuak lantzen dituzte batez ere. Gainera, aipatzekoa da euskara ere erabili dutela euren abestietan.

Ondoren, 01:00etatik 04:00era, musika elektronikoa jarriko dute Alai eta Elena Barker DJ-ek. Musika elektronikoa eta aurrerakoia ardatz dituen Dantz proiektuko kideak dira biak.

### Ekainaren 23an

San Juan bezpera ere musikarekin hasiko dugu, 11:00etan **Usartza Txistulari Banda**k Sanjuanetako Zortzikoa eskainiko baitu Untzagan. Gero, 12:00etan,







La Pegatina talde kataluniarrak dantzan jarriko du Untzaga bihar gauean.

kuadrillak elkartuko dira toki berean Urkizuraino kalejira egiteko eta **Ustekabe** txaranga izango dute bidelagun. Eta ez da txaranga entzuteko izango dugun azken aukera, 17:00etan Untzagan egingo diren kuadrillen jokoetan ere egongo direlako giroa jartzen.

Egun berean, beste txaranga bat ere izango dugu herrian, **Irulitxa**, hain zuzen ere. Ermuarrek 19:30ean kalejira egingo dute Untzagatik hasita.

Egun handiari ginga jartzeko, ezin zen Lisker falta. Herriko musika talde mitikoak 00:15etik 04:00etara joko du Untzagan estilo ezberdinetako doinuak eskainiz.

### Ekainaren 24an

San Juan egunean, goizean goiz, 08:30ean, Lizarrako dultzaineroek kalejira egingo dute eta, goiza amaitzeko, 12:45ean, **Eibarko Musika Banda**rekin San Juan kontzertua eskainiko dute Toribio Etxebarria kalean. "Jai giroko musika eskainiko dugu", esan digu Andoni Vazquez zuzendariak. "Kontzertuko lehen erdia bandak joko du eta beste erdia dultzaineroen laguntzarekin. 'Deba', 'Fullmen', 'Animo pues', 'Ardoa edanda' eta horrelako kantuak eskainiko ditugu. Gainera, 12:00etan, Estaziño kaletik abiatuta, kalejira eskainiko dugu dultzaineroekin".

Arratsaldean, 19:00etan, **Latuna Bando** txaranga eibartarrak estreineko aldiz joko du Sanjuanetan eta Eibarko Bizikleta plazatik kalejira abiatuko du.

Gauean, 22:00etan erromeria egongo da **Jainaga eta Narbaiza**ren eskutik, eta 00:15etik 03:00etara Jamaica Show orkestrak berbena eskainiko du.

### Ekainaren 25ean

San Juan jaiekin amaitzeko, martitzenean, dultzaineroak aurreko egunean bezala irtengo dira kalera goizean goiz. Eta iluntzean, 21:30etik aurrera, **Bilbao Mapa Mundi**ren eskutik bilbainadak egongo dira Untzagan.






# Kuadrillen jolasak bueltan dira, oraingoan Untzagan

Hainbat urtetako etenaldiaren ondoren, kuadrillen arteko jokoak egingo dira berriz ere San Juan bezperan. Aurreko edizioetan Zezen Plazan egin izan dira jolas hauek, baina harrezkero plaza aldatu egin da eta aurtengo ediziorako beste kokaleku bat aurkitu dute: Untzaga plaza.

Jokoak bazkalostean hasiko dira, arratsaldeko 17:00etan, eta aurreko edizioetako espirituari jarraituko zaio, barre artean kuadrillen arteko lehia sanoa bilatuz.

Kuadrillek zenbait joko egin beharko dituzte. Lehenik, arto bilketan arituko dira; bigarrenik, piszina txikietan gauzak bilatu beharko dituzte; hirugarrenik, klasiko bat, aulki jokoa; eta, klasikoekin jarraituz, beste bat, zapiaren jokoa.

Jokoak egin ondoren, sari banaketa egingo da eta, gainera, June Gomez 'Junego' omenduko dute. Junego 'El Conquistador del Fin del Mundo' lehiaketaren azkeneko edizioaren parte-hartzailea izan da eta, telebistan ikusi ahal izan dugunez, badu eskarmentua mota honetako jokoetan eta are gogorragoetan ere.

Lehia egongo da, noski, baina jai giroa gailenduko da Untzaga plazan. Gainera, hori horrela izan dadila bermatzeko, Ustebake txarangak girotuko du arratsaldea eta, zergatik ez, kuadrillak dena ematera animatuko ditu.

**Parte-hartzeko**

Jakin izan dugunez, kuadrillen jokoetan parte hartzeko ez da beharrezkoa izango aldez aurretik izena ematea. Horrela, kuadrillak Untzagara joan beharko dira jokoak hasi baino lehenago eta parte hartu nahi dutela adierazi beharko diete antolatzaileei.

Prebisioa ikusita, badirudi eguraldia lagun izango dutela. Beraz, kuadrillek ikuskizun entretenigarria eskainiko dutela aurreikusi daiteke. Onenak irabaz dezala eta denek gozatu dezatela!



Aurtengo edizioan jokoak ez dira zezen plazan egingo, Untzagan baizik, eta herriko kuadrillak daude deituta bertan parte-hartzera



# Ondo pasa Sanjuanetan!


T. Etxebarria, 8

BAR BUENOS AIRES

KALAKA

Untzaga, 5









GASTROTEKA BOSSA

Ego gain, z/g

Ongi etorriak zuen etxera!!

943 20 67 53






Ahana






KATU

k a l e

Kili Kili

GOSARIAK / PINTXOAK / EGUNEKO MENUAK

AFARIAK / MERENDOLAK / OSPAKIZUNAK...

☎ 943 20 24 01 Ibarkurutze, 12

# Magia eginda, herrixak jaixak ospatuko ditu

Gaur montatuko dute txosnagunea eta bihartik astelehenera arte festak hartuko du Txantxa Zelai. “Oztopo eta bide luzearen ondoren”, diote Jaixak Herrixak Herrixandako plataformakoek. Izan ere, urte osoan zehar Udalarekin tira-birak izan dituzte txosnagunearen kokalekua zehazteko orduan eta aurten, aldaketekin bada ere (kioskoaren aldean ez da txosnarik jarriko), aurreko urteetako toki beretsuan egingo dituzte egun hauetarako prestatu dituzten ekintzak.

Hiru egunetako egitaraua prestatu du Jaixak Herrixak Herrixandakok. Denetariko ekintza ugari izango dira, herrixak herrixandako antolatuak baitira.

Bihar, ekainaren 22an, Etxera Eguna ospatuko dute eta 12:00etan irekiko dituzte txosnak. 13:00etan, ‘marianito pintxada’ egongo da Yare Sound Systemen eskutik eta 15:00etan elkartasun bazkaria egingo da Bizimiñak lagunduta. Bazkalostean, 17:30ean, Xabier Badiola musikari eibartarrak zuzeneko saioa eskainiko du eta 19:00etan Brigada Morearen bilera irekia egingo da. Txosnagunea laga eta 19:30ean DJ Txarazpikuarekin kalejira egingo dute kamioian herriko kaleetan zehar, 20:00etan ‘Etxera brindisa’ egingo da, eta gauean kontzertuak egongo dira: 22:30ean Malko, 00:30ean Nikotina eta 02:30ean hurrengo orrialdeetan elkarrizketatu ditugun DJ Galtzagorri.



Ekainaren 23an, San Juan bezperan, eguerditik gauera egongo da festarako aukera. Txupinazoaren ondoren, 13:40an, trikipoteoa egingo da Eibarko Trikitilari Gazteekin eta 15:00etan herri bazkaria egingo da. Bazkalostean, 18:00etan, Dancehall tailerra eskainiko du Amaia






Sinobasek eta, dantzan jarraitzeko, 19:30ean kalejira egingo dute Ostikada elektrotxarangarekin. Gauean, musika izango da protagonista, eta 22:00etan Bisitariak, 00:00etan Maruja Limon eta 02:00etan DJ La Fulana arituko dira. Tartean, 23:00etan, San Juan Sua egingo da.

**Mugo Panderoa 24an**

Txosnaguneko egitarauak hilaren 24an izango du amaiera, baina egun potentea prestatu dute astelehenerako ere. Suabe hasiko dira, 17:00etan Mihiluze lehiaketa eginez, eta 18:00etan kulturarteko pintxopotea egingo da Lagun Artean, Mujeres Tejiendo Red, Gazte Safa eta Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatuta. 19:00etan, iazko Sanjuanetan arrakasta handia izan zuen Yogurina Borova egongo da Celeste Poliester eta Xarma Leonerekin Drag Showa eskaintzen. Eta amaitzeko, musika: 22:30ean Mugi Panderoa egongo da, 01:00etan Ai Ama eta 02:30ean Feten Señorak.



Nikotina musika taldeak bihar gauean joko du zuzenean.






**DJ GALTZAGORRI** • Ander, Nara, Helene eta Uxue



# “Publikoaren parte-hartzea bilatzen dugu”

**Nola sortu zen DJ Galtzagorri sortzeko ideia?**
HUEZIn magisteritza ikasten dihardugu eta bertako euskal batzordeak jaialdia antolatu zuen. DJa falta zela ikusi zuten eta, aurrekontu handirik ez zegoenez, gu geu musika jartzera eta tontoarena egitera animatu ginen.

**Nondik dator izena eta erabiltzen duzuen iratxoaren irudia?**
Hasi ginenean, ez genekien behin egingo genuen gauza bat izango zen edo aurrera jarraituko genuen. Orduan, epe luzerako proiektu bezala planteatu genuen eta, izena bilatzeko orduan, euskararekin zerikusia zuen zerbait aukeratu nahi genuen. Galtzagorrik euskal kulturarekin zerikusia zuela iruditu zitzaigun eta Interneten iratxoaren irudia aurkitu genuen, gure logotipo bihurtuz.

**Zuen saioak nolakoak izaten dira?**
Zenbait pintxada egin ditugu eta bakoitza ezberdina izan da. Lehenengoa, Arrasaten, ederra izan zen eta jende ugari etorri zen. Musika jartzen dugu, baina jendea animatzea gustatzen zaigu eta, horretarako, hainbat gauza egiten ditugu. Adibidez, irrintzi lehiaketa, sokatira...

**Beraz, ez da musika jartzea bakarrik.**
Publikoaren parte-hartzea bilatzen dugu, eurentzat entretenigarriagoa izango dela uste dugulako.

**Nolako musika jartzen duzue?**
Euskal musika jartzen saiatzen gara, baina jendearen eskaerei zabalik gaude, gure printzipioekin bat egiten badute behintzat. Estiloari dagokionez denetik jartzen dugu eta, jendearen gustuak zeintzuk diren ezagutzen ari garenez, are gehiago.

**Diskoak jartzen dituzue edo ordenagailuarekin zabiltzate?**
Momentuz, ordenagailua dugu. DJ-en aplikazioak erabiltzen ditugu eta hortan trebatzen gabiltza, baina ez da erraza. Aurrera egiten ari garela ikusita, DJ mahai bat hartu behar dugula pentsatu dugu, zerbait ezberdina eskaintzeko. Guretzat proiektu polita eta entretenigarria da.

**Zuentzat zer da Sanjuanetan txosnagunean aritzea?**
Orain arte egin dugun gauzarik handiena izango da eta horrek pixka bat urduri jartzen gaitu. Gustora gelditzeko moduko ikuskizuna eskaintzea nahiko genuke.





# Altuerako Euskal Jaialdia San Juan Txiki egunerako

Aurtengo Euskal Jaialdiak bere ohiko eguna berreskuratuko du oraingoan eta, horrela, San Juan Txiki eguneko arratsaldera bueltatuko da. Ez da aipatutakoa berritasun bakarra izango, "ikuskizun biziagoa" eskaintzeko asmoz antolatzaileek zenbait aldaketa prestatu dituzte-eta jaialdiko egitarauan, "zaletu eta ikusleen gozamenerako".

Altuerari dagokionez, azken urteotako edizioetan pixka bat "ahaztuta" izan duten sasoi bateko altuerako mozketa errekuperatuko dute, "5 metroko altuerara igota moztuko baitu Julen Kañamaresek". Arostegi herriko nafarrak ez badu bertigo handirik izaten horrelakoetan, goigorenean ibiltzen ohituta dagoen Alex Txikon alpinistak ere lurra hartuko du Untzagako ekitaldian. Lemoatarrak bikotea osatuko du Ezpeleta "Bihurri"-tarren gazteenarekin, azken horietako beteranoak Kañamares lagun izango duen bitartean.

Launa kirolariz osatutako bi taldeen artekoa izango da arratsalde horretako lehiaketa nagusiaren ardatza. Ernesto eta Hodei aitasemeak, Txikon eta Kañamares aizkolariekin batera, Udane eta Elene Ostolaza ahizpak izango dira harri-jasotzaileak, eta Karlos Aretxabaleta arabarra eta Mikel



Agirre ondarrutarra arituko dira Iparraldeko jokoetan. Proba nagusi hori lau zatitan banatu dute, orden honetan jokatzeko: aizkora, harri-jasotzea, txinga eroate eta korrika-saioa. Antolatzaileek diotenez, "egur haundi samarrak izango dira, 1'70 edo 1'80koak, lehia biziagoa eta ikusgarriagoa egin nahi dugulako".

Lehiaketaren aurretik, dena dela, betiko lez, herri-kirolen erakustaldia ere eskainiko dute. Tartean izango dira egur-mozketaren abildade muestra batzuk, "zutika edo bertikalean egitekoarekin batera, aitzurrarekin ere moztuko dugulako". Lehen aipatutako 5 metroko altueran egingo den lanarekin, harri-jasotzaileak harri ezberdinekin arituko dira, eta Iparraldeko jokoetan, lasto jasotze eta botatze lanak izango dira presente, ingudearekin egingo duten lanarekin batera.

Behin torneoa amaituta, harrijasotzaileen agurra eta lasto-botatzea egingo dira jaialdiarekin amaitzeko. Martitzenean jokatuko den ...eta kitto!-k antolatutako Euskal Jaialdia 19:30ean hasiko da eta ordu eta laurden pasatxo iraungo du: "Gustatuko litzaiguke, behintzat, ordu eta erdiren bueltan errenditzea", dioskue.






# “Untzaga plaza mitikoa da eta ilusio berezia egiten digu Eibarren jotzeak”

**TOMAS LIZARAZU** • Bulego

Aurten ez dugu hilaren 23ra arte itxaron beharko San Juan jaiez ospatzeko. Izan ere, San Juan bezpera domekan izanik, gaurtik aurrera egongo da festarako aukera gure herrian. Horrela, maila handiko kontzertuak izango ditugu gaur, 21:30etik aurrera, Untzagan, Lilo eta Bulego taldeekin.

>>> Elkarrizketa osoa

Taldea sortu zutenetik ibilbide arrakastatsua izan du Bulego taldeak. Azkoitiarren oihartzuna handitu egin da disko batetik bestera eta Euskal Herriko mugak gainditu dituzte. Tomas Lizarazu abeslariak Eibarren jotzeko gogoz daudela esan digu, jaiei hasiera emateko talde egokia izango delarik.

**Eibartarrok zuen kontzertuaz eta jaien hasieraz gozatzeko gogotsu gaude. Nolako eskaintza ekarriko duzue?**
Kontzertu asko ikusten egon gara Untzaga plazan. Plaza mitikoa da eta ilusio berezia egiten digu Eibarren jotzeak. Alde batetik, bertan jotzeagatik disfrutatu nahi dugu. Eta bestetik, abenduan ‘Aldatu aurretik’ izeneko diskoa kaleratu genuen eta Eibarren hasiko dugu diskoa aurkezteko udako kontzertuen sasoia. Beraz, kantu berriak kantu zaharrekin uztartuko ditugu. Guretzat Bulegoren kontzertuak ez dira eszenatokira igotzen diren lau musikarira mugatzen, beste barik. Ez. Zerbait gehiago eskaintzen saiatzen gara.

**Nola?**
Urtarrilean show berria prestatzen hasi ginen eta apustu handia egin dugu argiteria potentea ematearen eta soinua oso fin lantzearen alde. Estilismoan ere esfortzua jarri dugu. Beti saiatzen gara beste arlo batzuetan adituak diren jendearekin inguratzen. Barixakuan lantalde horren guztiaren lanaren emaitza ikusiko da eta ikusleak etxera itzultzean saiatuko gara pentsa dezatela ez dutela kontzertu bat ikusi, zerbait gehiago baizik.

**Askotan, publikoak nola pasako duen azpimarratzen dugu, baina zuek nola saiatzen zarete pasatzen eszenatoki gainean zaudetenean?**
Ni neu momentua gozatzen saiatzen naiz. Askotan, adrenalinarekin eta jendearen konexio horrekin, kontzertuak segituan pasatzen dira, eta konturatzen naiz ez naizela presente egon, gitarra jotzen kontzentratuta egon naizelako, abesten edo dena delakoagatik. Azkenean musikariak gara hau gustatzen zaigulako. Oso polita da estudioan sartzea eta abestiak sortzea, koadernoa hartu eta letrak idaztea, baina benetan mugitzen gaituena eszenatoki batera igo eta hor sortzen den energia bizitzea da. Niretzat dena emateko eta gozatzeko momentua izaten da. Baina, esan bezala, adrenalinarekin dela-eta batzuetan ez zaude presente, momentua pasatzen da eta pena ematen dit. Bira honetan kontzertu bakoitza disfrutatzen saiatzen ari gara eta lortzen ari garela uste dut. Udara eta plaza handiak hasten diren honetan, oraindik eta gehiago saiatu behar gara disfrutatzen eta, dena emateaz gain, momentua gozatzen.

**Mota guztietako plazatan, aretoetan eta eszenatokitan jo duzue. Nola egokitzen zarete toki batean edo bestean jotzeko?**
Teknikoki moldatu beharra dago. Adibidez, urte amaie-



ran Japonian egon ginen eta ez da gauza bera Japonian edo Eibarren jotzea. Bulegon lau urte eta erdi daramatzagu, ez da ibilbide luzea, baina aurretik musikaren munduan urte asko ibili gara eta badugu edozein egoeratara moldatzeko esperientzia. Bestalde, polita izaten ari da Bulegok hainbat gauza bizitzeko ematen digun aukera. Alde batetik, plaza handietan jotzeko aukera dugu, Eibarren adibidez, jende askoren aurrean; eta era berean, Galiziara joaten gara eta bertan dauden 40-50 lagunak konbentzitu behar ditugu. Horrek hankak lurrean jartzen dizkigu. “Ondo zoazte, baina oraindik lan asko dago egiteko”, eta horrela izan dadila. Kontraste hori bizi ahal izatea polita da. Egoera horiek plaza handietan eta egoera tekniko erosoetan gehiago gozatzeko aukera ematen digute. Eibarkoa gozatzeko kontzertua izango da. Guretzat gozamena da horrelako toki batera joatea, teknikoki erraztasunak izatea eta eszenatoki txukun batean jotzea. Bira honetan toki txikiagoetan ere jo dugu. Izan ere, biraren hasieran Bruselan eta Parisen jo genuen, eta gero Madrilen, Bartzelonan eta Galizian egon gara. Beraz, eszenatoki txiki horietan egon eta gero, Eibarrera joatea gozamena izango da.

**Euskaraz egin eta zuen musika Euskal Herritik haratago eraman duzue. Musikak ez du mugarik?**

Naturaltasunez egiten dugu euskaraz. Badu pixka bat militantziatik edo aktibismo linguistikotik, baina euskaldunak garelako egiten dugu euskaraz. Letra sortzen hasten naizenean, ideiak euskaraz etortzen zaizkit. Sentimenduak adierazteko modua hori da. Badago aurreiritzi multzo bat gehien bat Euskal Herritik irteten garenean, baina Euskal Herrian ere bai. Uste dut jendeak pentsatzen duela euskaraz egiteak ateak ixten dituela eta mugatu egiten gaituela. Zortea edukitzen ari gara, Bulego justu kontrakoa erakusten ari zaigulako.






# Udako Ikus-entzunezkoak uztailaren 2tik 4ra




Aurten ere ikus-entzunezkoekin gozatzeko aukera izango dugu uztailean, Arrate Kultur Elkarteak antolatu duen programari esker. Ohikoa den bezala, San Andres parrokiako klaustroan izango dira emanaldiak, hiru egunetan (uztailaren 2an, 3an eta 4an), eta sarrera erabat librea eta doanekoa izango da.

**Uztailaren 2an** hasiko da egitaraua, **22:00etan, *El mundo en bicicleta* pelikularekin** eta ondorengo **solasaldiarekin.** Filmak Andoni Rodelgok eta Alice Goffartek, Maia eta Unai seme-alabekin, bizikletaz munduan zehar egindako bidaia kontatzen du. Pedalei eraginda, bikote honek 65.000 kilometro egin ditu guztira, bost kontinenteetan zehar (2.000 kilometro umeekin). Bidaian zehar milaka argazki filmatu eta bildu dituzte, esperientzia eta pasadizo ugarirekin, eta horietako batzuk film honetan ikusi ahalko dira.

Hurrengo egunean (**uztailak 3**), **19:30ean**, **Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraik *Ztanda*P** umorez betetako binakako bakarrizketa aurkeztuko dute. Aurretik egin dituzten emankizun arrakastatsuen haritik, honetan ere generoa hartuko dute umoregai, eta eguneroko gaiak lehertzen saiatuko dira, betaurreko moreak jantzita.

Eta, zikloa ixteko, goi-mailako saio bikoitza prestatu dute **uztailaren 4rako**: “Markos Gimenoren euskarazko palindromoetan oinarritutako kartelen erakusketa ikusgai egongo da ekainaren 26tik uztailaren 7ra Topalekuan. Karteletako batzuk Markosek berak diseinatu zituen. Baina orain bere lagun asko eta dozenaka euskal artista elkartu dira Markosen palindromoak kartel formatuan ilustratuz. Era berean, Esteban Montoriok diseinaturiko eta Joseba Sarrionandiak glosatutako bilduma jaso dute Markos Gimenoren “101 letrakartel” liburuan. Zuzenean proiektatutako irudiz lagunduta, gure hizkuntzan, modu ezberdin eta artistikoan murgildu eta Markosen obra erreibindikatzeko, uztailaren 4rako programa oparoa antolatu dugu”. **Joseba Sarrionandia eta Jokin Azpiazu** protagonista izango dituen **solasaldiarekin** hasiko dira, **19:30ean**: “Markos Gimenoren unibertsoan murgiltzeko, Joseba Sarrionandiak erakusketako sormen prozesuez eta bitxikeriez hitz egingo du, eta Jokin Azpiazu musikari eta sortzaileak, ostera, lagun eta taldekidearen ikuspegia ekarriko dizkigu”. Eta **22:30etik aurrera**, berriz, **Mursegok** eta **Dodomak musika eta irudiak** eskainiko dituzte: "Markos Gimenoren erakusketako kartel eta palindromoetan inspiratutako emanaldian, kontzertua eta zuzeneko irudi proiekzioa eskainiko dituzte Maite Arroitajauregi konpositore eta Maialen Belaustegi artista bisualak, erakusketaren muinarekin bat eginez”.






943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue.



Zorionak, **LUKEN**, ekaiñaren 24an 12 urte beteko dozuz-eta. Asko maitte zaittugu. Musu haundi bat aita eta amaren partez.



Zorionak, **IRENÍ**, martitzenian 10 urte egin zenduazen-eta. Musu haundi bat Eder, aitta eta ama-ren partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **LUKA** Lopez Amas, 24an 7 urte beteko dozuz-eta. Musuak aitxi-txa-amama, zure arreba Noa eta zure lehengusu Danel eta Anerren partez.



Zorionak, **MAREN**, bixar 7 urte beteko dozuz-eta. Bikain pasau eguna! Famelixa guztiaren partetik!



Zorionak, **IRUNE**, bixar 8 urte beteko dozuz-eta. Segi holan, printzesa, beti alai eta pozik! Etxeko danok asko maite zaittugu.



Zorionak, **NILE** eta **JULE**, hillaren 19xan 7 hillabete bete dozuezelako. Famelixa guztiaren partetik!



Zorionak, **MARA**, gaur 12 urte betetzen dozuzelako, eta **URKO**, abuztuaren 5ian, 8 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **LUKEN**! Gaur 3 urte. Alkarrekin ospatu eta disfrutatuko dogu eguna. Patxo haundi bat Xabi, Ane eta Mararen partez.



Zorionak, **EKHI**! Hillaren 13an urtetxua bete zenduan-eta. Jarraittu zaren alaixa izaten! Musu haundi bat etxekuen partez.

# Iragarki laburrak

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

**1. ETXEBIZITZA**
- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
- 2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

**4. LANA**
- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Estaziño 4an (4. pisua). 4 logela, egongela, 2 bainugela. Dena kanpora begira. Trastelekuarekin. 661874548.

### 1.2. Errentan

- Pisua alokagai Deban, udako hileetan eta irailerako. Argitsua. Igogailuarekin. 656723437.
- Pisua alokagai Vielhan (Baqueira). 75m². 2 logela, 2 komun eta egongela-jangela-sukaldea. Igogailua eta garagea. Sauna eta igerilekua. Jolasguneak (futbolina, billarra eta ping pong-a). Ekain, uztail edo abuztu osoa: 1.500 euro. 688840712. .

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Esperientziarekin. 642855788.
- Emakume euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak zaintzeko arratsaldez. 665733162.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. 624523413.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. 693741354. Irati.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioa) eta garbiketak egiteko. 603503689.
- Emakumea eskaintzen da etxeak edo tabernak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. 688758630.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko (akreditazioarekin) eta garbiketak egiteko. Erreferentziak. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 643577022.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 613304239.
- Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Externa. 643708616.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. 653075865.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez eta ospitalean ere. Orduka. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta etxeak garbitzeko. Erreferentziak. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Arratsaldez, gauez eta asteburuetan. 640821269.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. 677259560.

### 4.2. Langile bila

- Pertsona euskalduna eta arduratsua behar da irailetik aurrera umea eskolara eramateko. 699495279.
- Frantsesa dakien zerbitzaria behar da Eibarko jatetxe baterako. 606848794 / jatetxeaeibar@outlook.es
- Ileapaintzailea behar da Elgoibarko ileapaindegi batean. Jornada guztirako edo erdirako. 634261485.
- Pertsona euskalduna eta arduratsua behar da irailetik aurrera umea eskolara eramateko. 69945279.
- Kamarera/o behar da Eibarko Topa-Leku tabernan. 943558728. Bidali curriculum-a: lourdesburgos@hotmail.es
- Fisioterapeuta bat behar da Eibarko kontsulta batean. Euskera eta esperientzia baloratuko da. 699632248 watsapez edo ane_mendia@hotmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Neska eskaintzen da ingelesezko klase partikularrak emateko. 688728655.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.2. Eman

- Gazteentzako/haurrentzako logelako altzariak emateko prest. 90 zm-ko ohe-egitura, oheburua, idazmahaia eta apalak. Erabilera-markekin, baina baldintza onargarrietan. 686058459. Leire.
- 90 ohe-kabia oparitzen da. 943207506.
- 3 hilabeteko hiru katakume oparituko nituzke. 632252602.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
ESCUELA OFICIAL DE IDIOMAS DE EIBAR

# EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA

## Matrikula:
## Irailaren 2tik 17ra

On-line
**IKASGUNEA**
plataformaren bitartez



## DEUTSCH - ENGLISH - EUSKARA - FRANÇAIS

Ikastaro ERDIPRESENTZIALAK:
egun bat eskolan +
lan pertsonala
MOODLE plataforman

ARRASATEN eta AZKOITIAN
gela desplazatuak

## IKASTURTE OSOAREN PREZIOA: 72,36€

*Agiri ofiziala eskura ezazu!*

Informazio gehiago:
Otaola hiribidea 29 EIBAR
eoieibarheo@gmail.com
943899275

eeoieibarheo

www.eoieibarheo.hezkuntza.net


EIBAR
HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL
Gure bokazioa, kalitatezko odontologia
EIBAR
HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL
Servicios
Todos los servicios en la misma clínica
Odontología general
Ortodoncia
Odontología infantil
Prótesis fija y removible
Blanqueamiento y estética dental
Cirugía e implantes
Kontsultatu hemen gure webgune eguneratua
EIBAR
San Agustin Kalea, 4 behea ezkerra (Eibar)
943 537 076 · 688 884 808
www.eibarclinicadental.com
R.P.S. 72/19 MAITANE G. IÑIGUEZ · ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA